

## SAN PEDRO BASELIZA

Bazen behin Altsasu eta Urdiain erdian baseliza zahar bat. Baselizaren inguruan erreka txiki eta eder bat eta harizti sendo bat zeuden. Baselizan Fede apaiza bizi zen. Apaiza oso maltzurra zen, bakardadea asko gustatzen zitzaion eta ez ordea, jendearekin harremanak izatea. Horregatik ez zitzaion gustatzen jendeak gogaitzea. Asteburu guztietan jendea basora joaten zen eguna famili artean eta lagun artean pasatzera eta zarata handia sortzen zuen eta horregatik kriston errietak izaten ziren herritar eta apaizaren artean.

Behin Ane izeneko neska txiki bat pilota batekin jolasten ari zen baselizaren ondoan. Apaiza otoitz egiten zegoen eta atsedean bat hartu zuen. Fede kokotaraino zegoen pilota entzuteaz eta baselizatik atera zen eta Aneri errieta egin zion. Orduan Ane izututa korrika hasi zen eta baso sakonean sartu zen. Aneren gurasoak, Maritxu eta Antton, oso kezkatuta zeuden bere alabatxoak ez zelako inon agertzen eta baselizara joan ziren apaizari ea Ane ikusi zuen galdetzera baina apaizak zoroarena egin zuen. Gurasoak herritarrei deitu zieten eta denak ilundu baino lehen presaka basora joan ziren Ane bilatzera. Baina ez zuten aurkitu. Bi egun pasa ziren eta Ane baselizaren ondoan agertu zen. Anek zer gertatu zitzaion kontatu zuen. Herritarrak gertatutakoa entzutean apaizarekin oso haserretuta zeuden eta denon artean jai bat ospatzea pentsatu zuten. Horretarako herritarrek baselizaren aurreko zuhaitzak moztu zituzten eta hor herriko bazkaria egin zuten. Altsasuko txistulariak ere joan ziren eguna alaitzeko.

Apaizak herritarren festa ikusi ondoren beldurtuta ospa egin zuen. Hortik aurrera urtero festa hau ospatzeko San Pedro basoan elkartzen dira herritarrak.

**Egileak:** Eugenio, Felix eta Iñaki.